

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 7,1 gora egin du 2018ko apirilean

2018ko lehen lau hilabeteetan, esportazioak % 9,9 hazi dira, eta errekor berri batera heldu.

Euskal Autonomia Erkidegoko **ondasunen esportazioek** % 7,1eko igoera izan zuten urte arteko tasan 2018ko apirilean, EUSTATEk hornitutako datuen arabera. Zenbatekoa 1.998 milioi eurotan kokatu zen, iazko hil bereko 1.866 milioien aldean. Ondasun *energetikoen* esportazioak % 1,5 igo ziren, eta ondasun *ez-energetikoenak*, berriz, % 7,7.

Araba da esportazioen hazkunde handiena izan duen lurralde historikoa: % 16,4koa; Bizkaian, esportazioak % 6,1 hazi dira; bukatzeko, Gipuzkoan % 0,5 egin dute atzera.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2018 Apirila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Apirila			Apirila		
	2017	2018	Δ %	2017	2018	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.865.577	1.998.074	7,1	1.531.257	1.606.048	4,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	166.725	169.224	1,5	498.488	435.960	-12,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.698.851	1.828.850	7,7	1.032.769	1.170.089	13,3
URTEKO METATUA	7.657.658	8.419.244	9,9	6.299.646	6.514.447	3,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	555.075	748.530	34,9	1.914.826	1.787.436	-6,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	7.102.584	7.670.714	8,0	4.384.820	4.727.012	7,8
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	558.962	650.824	16,4	299.300	336.018	12,3
URTEKO METATUA	2.455.286	2.714.676	10,6	1.291.286	1.453.257	12,5
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	712.487	755.897	6,1	953.250	935.836	-1,8
URTEKO METATUA	2.887.440	3.256.567	12,8	3.805.962	3.749.399	-1,5
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	594.128	591.353	-0,5	278.708	334.194	19,9
URTEKO METATUA	2.314.932	2.448.001	5,7	1.202.398	1.311.791	9,1

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal Autonomia Erkidegoko **ondasunen inportazioek**, bestalde, % 4,9ko hazkundera izan zuten, 1.661 milioi euroko zenbatekoaz. Inportazio *energetikoen* % 12,5 behera egin zuten, eta *ez-energetikoenak*, berriz, % 13,3 hazi ziren.

Gipuzkoako inportazioak % 19,9 hazi dira, eta Arabakoak % 12,3; aldiz, Bizkaikoak % 1,8 jaitsi dira.


Esportazioko jarduera-adar garrantzitsuenei erreparatuz gero, ikusten da areagotu egin direla *Siderurgiako produktuen* esportazioak (esportatutakoaren % 11,7), eta *Motor ibilgailuen fabrikazioari* lotutakoena, berriz, % 25,8; izan ere, hura da esportazio-bolumen handiena duen adarra (guztizkoaren % 27,6). Garrantzian hirugarrenak (guztizkoaren % 9,9), *Erabilera orokorreko makineriak*, % 5,2 egin du aurrera, eta laugarrenak, *Metalezko artikuluek*, berriz (guztizkoaren % 7,5), % 4,9. Araban biltzen da *Motor-ibilgailuen* esportazioa, Bizkaian *Petrolio-fintzearena*, eta Gipuzkoan *Erabilera orokorreko makineriarena*.

Detailera jaitsiz ikus daitekeenez, esportazioko muga-zergen bost partida nagusiak ondorengoak dira: *5-10 pertsonako turismoak*, *Auto ibilgailuen zatiak eta osagarriak*, *Salgaiak garraiatzeko auto-ibilgailuak*, *Petrolio-olioak*, eta *Hodi eta profil hutsak, burdina edo altzairuzko soldadurarik gabeak*. Partida horiek, apirilean, guztizkoaren % 35,4 izan ziren guztira, 707,8 milioi euroko balio osoaz. Esportazioak honela biltzen dira: Araban, *5-10 pertsonako turismoak* eta *Salgaiak garraiatzeko auto-ibilgailuak*; Bizkaian, *Petrolio-olioak*; Gipuzkoan, azkenik, *Balbulak eta antzekoak*, eta *Burdinazko edo aleatu gabeko altzairu profilak*.

Hil honetan, bost herrialde dira berriz gure bezero nagusiak: Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia. Horiek dira Euskal Aeko esportazio guztien % 51,1en hartzaileak. Horietako lau EB28koak dira; hain zuzen, erkidego horretan biltzen dira gure esportazioen bi heren (% 66,7).

Inportazioak jarduera-adarren arabera aztertuz gero, ikus daiteke garrantzitsuena, *Petrolio eta erauzpen industriak* (guztizkoaren % 27,5) % 11,9ko hazkundera izan duela. Garrantzi aldetik atzean dituen partidak ere hazi egin dira: *Siderurgiako produktuak* (% 25,7), *Motor-ibilgailuak* (% 12,9), eta *Erabilera orokorreko makineria* (% 30,2).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. (Milioi euro)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 1.904,8 milioi euroko saldo positiboa eman du, 2018ko urtarriletik apiril arteko metatuan

Lehen lau hilabeteetan guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioek % 9,9ko hazkundera izan zuten aurreko urteko aldi berdinenaren aldean. Horrek esan nahi du 761,6 milioi euro gehiago, eta zenbateko horri Bizkaiak egin dio ekarpen handiena: 369,1 milioi. Esportazioaren kopurua aldi horretan 8.419,2 milioi izan da eta, beraz, hori benetako marka da serie historikoa bere osoan aztertzen badugu.

Bizkaiko esportazioak Euskal Autonomia Erkidegoko handienak dira, 3.256,6 milioi guztira, urte arteko % 12,8ko hazkunderaz. Gipuzkoan, hazkundera % 5,7 izan da (2.448,0 milioi), eta Araban, berriz, % 10,6 (2.714,7 milioi). Produktu mota kontuan hartuz, "Produktu ez-energetikoak" dira, 568,1 milioi gehiagorekin, lehen aipatutako hazkundera biltzen dutenak, eta produktu "energetikoak", berriz, 193,5 milioi jartzen dute hazkunde horretan.

Sei jarduera adar garrantzitsuenek, esportazio-bolumenaren arabera, igoerak izan dituzte aldi honetan. Bereziki aipagarria da *Koke-labeak eta petrolio-fintzeari* lotutako produktuen hazkundera (% 48,8), 649,4 milioi eurora helduz. Aldi berean, esportazio-bolumen handieneko adarra, alegia, *Motor-ibilgailuen fabrikazioari* lotutako produktuak (2.359,0 milioi eta guztizkoaren % 28,0), % 19,5 hazi da. Antzeko hazkundera (% 18,4) izan du garrantzian bigarren doanak: *Siderurgiako produktuak* (923,8 milioi).

2018ko lehen lau hilabeteen rankingak Alemania egiten du herrialde hartzaile nagusi, guztira esportatutakoaren % 16,1az. Alemaniaren ondoren, Frantzia eta Estatu Batuak daude (%15,5 eta % 7,9 hurrenez hurren); horrenbestez, hiruren artean EAeko esportazioen ia % 40 biltzen dute.

Euskal Autonomia Erkidego osoko inportazio metatuak aztertutako aldian 6.514,4 milioi euro inguru izan dira. Kopuru horren urte arteko konparazioa eginez gero, ikusten dugu aurreko urtean aldi berean izandakoa baino 214,8 milioi gehiago dela. Igoera horren arrazoia da, hein handi batean, Arabako lurraldean (1.453,3 milioi balio duten esportazio metatuak baititu), % 12,5eko hazkundera egon dela aldi horretan, alegia, 2017ko aldi berean baino 162,0 milioi gehiago. Gipuzkoan ere inportazioak hazi dira, 109,4 milioi, baina Bizkaian, berriz, beherantz egin dute (56,6 milioi gutxiago); inportatutakoaren balioa lurralde horietan 1.311,8 milioira eta 3.749,4 milioi eurora heldu zen, hurrenez hurren. “Produktu energetikoen” inportazioa % 6,7 jaitsi da, baina “Produktu ez-energetikoak”, berriz, % 7,8 igo dira.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 2018ko urtarriletik apirilera 1.904,8 milioiko saldo positiboa eman du, aurreko urteko lehen lau hilabeteetan izandakoa baino 546,8 milioi gehiago. Horren arrazoia da, neurri batean, Bizkaiko balantze komertziala hobetu egin dela, nahiz eta negatiboa izan, 425,7 milioi gutxitu baita, urte batean -918,5 milioitik -492,8ra pasaz. Beste bi lurraldeen saldoa, aldiz, positiboa da, eta 1.261,4 milioira heltzen da Araban, eta 1.136,2ra Gipuzkoan, 97,4 eta 23,7 milioi gehiago, hurrenez hurren, aurreko urtean baino.

Egiaztatu da aldi honetan gure esportazioen % 98,0k badutela “teknologia maila” bat, horrelako “goi” edo “erdi-goi” maila baitute kasuen % 52,4tan. Gure inportazioetatik, % 67,5ek dute teknologia mailaren bat. Produktu “teknologiko” deitzen zaie prestatzeko konplexutasun mailaren bat dutenei. Askotan, batez ere goi mailetan, etengabeko ikerketa-ahalegina eta oinarri teknologiko sendoa eskatzen dute.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62